

Fantasia eta izua

Felipe Juaristi

"Fantasiako ipuinak"
Guy de Maupassant
itzultzailea: Josu Zabaleta
Ibaizabal, 2000

Euskal itzulpengintzak maila handia duela esateak ez du berez ezer berezirik adierazten, dakigunaz gainera, lehendik azaltzen ez bada zein izan den itzulpengintzaren beraren bilakaera, edo-eta zein zen duela urte batzuetako maila. Poliki-poliki egin du bere bidea eta gaur egun itzultzaile on asko ditugu. Tartean Josu Zabaleta, Maupassanten ipuin hauen itzultzaile. Beteranoa da bera, itzultzaileen maisu eta aholkulari. Benetan itzulpen ona egin du oraingoan.

Bestalde, esan beharra dago, idazle gutxi direla munduan Maupassanten kalitatekoak. Hizkuntza askotara itzulia izan da, behin baino gehiagotan euskarara. Esan nahi dut asko direla, dagoeneko, Maupassanten euskal itzulpenak.

Eta dakidalako diot, ez da itzultzen erraza, ezta samurra ere. Asko idatzi zuen Maupassantek eta horregatik oraindik asko egongo da, agian, itzultzeko. Hustu ezineko ganbara baitirudi.

Honako honetan fantasiako ipuinak bildu ditu itzultzaileak. Maupassantek berak izugarri maite zuen izua, bere horretan maite ere, baita izua eragitea ere. Egia da garaiak agintzen zuen estiloa zela izuzko ipuinak idaztea. Beste gauza asko ere maite zituen Maupassantek, tartean amodioa edo maitasuna egitea, eta horretaz ere idatzi zuen, baina ez dugu aipatuko, gaitik oso urrun joango baikinake. Fantasiako ipuin hauetan gizakion alderdi -luna aipatzen da, indar ezkutuen eragina; normalak ez diren gizon-emakumeak, munstroak alegia ageri dira. Hitz gutxiz, misterioa da nagusi.

El Diario Vasco, 2001-01-27